



## IRAKASLEON IKASTURTEKO BIGARREN MAHAI NEGOZIATZAILEA

### Aniztasunari erantzuteko Dekretua, Lekualdatze-lehiaketa, 2023ko Lan eskaintza publikoa eta Lan baldintzen akordioa

www.lab.eus

irakaskuntzabizkaia@lab.eus

irakaskuntzaaraba@lab.eus

irakaskuntzagipuzkoa@lab.eus

irakaskuntzanafarroa@lab.eus

Atzo ikasturteko bigarren mahai negoziatzailea izan genuen irakasle lan baldintzak arautzen dituen akordioaren proposamenak eztabaidatzeko. Gai honek atzoko bileran zentralitatea hartuko zuen arren, Administrazioak proposatutako bestelako gaiak direla eta, ezin izan genuen landu. Beraz, beste bilera bat adostu genuen akordio arautzailearen lanketa egiteko azaroaren 20an.

Beste gaiei dagokienez, hauxe da bilerak emandakoa:

- 1. EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleek Hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzuteko Dekretua aurkeztea

Inklusioari aurre egiteko Dekretu berri hau sakon aztertuko dugu, horretarako hilabeteko epean sektore bezala ekarpenak aurkeztuko dizkiogu Hezkuntza Sailari. **Gure ekarpenak norabide honetan bideratuko ditugu:** eskoletan baliabide pertsonalak, hala nola, hezkidetzako, euskara indartzeko eta inklusiorako figura estrukturalak txertatzea; Formakuntza jasotzea; HKIa irizpideak kontuan izatea baliabideak gehitzerakoan. Beraz, baliabide gehigarriak eskatu betiere, lan zametan eragin negatiborik suposatu gabe.

- 2. 2023/2024 Lekualdatze-lehiaketaren zirriborroari egindako alegazioak

Sindikatuak aurkeztutako alegazioak aztertu ziren. Nahiz eta alegazio batzuk aztertuko zirela adierazi izan, Hezkuntza Sailak Espainiar Estatuko Lekualdatzeetan ezarrita dagoen arautegiaren araberrako bidetik urrunduko ez zirela adierazi zuten behin eta berriz.

2023/2024ko Lekualdatze autonomikoaren deialdia abenduaren 1ean argitaratuko da. Parte hartzeko epea abenduaren 4tik 21era aurreikusten du Administrazioak.

LABek urtetan aldarrikatu duen bezala, lehiaketara eskaintzen diren lanpostu hutsen zerrenda alde zurretik lehiakideei ezagutzera ematea eskatuta ere, Hezkuntza Sailak adierazi zuen **behin-behineko zerrenda bat argitaratuko zuela egun batzuk lehenago**. Nahiz eta prozesu honetan plaza guztiak ateratzea eskatu, ahalik eta gehien ateratzen saiatuko zirela erantzun zuen.



Merezimendu lehiaketa eta birbaremazioaren inguruko datu eta datak helarazi zizkiguten ahoz. Hemen informazio gehiago: <https://labur.eus/cFtBe>

- 3. 2023ko Lan eskaintza publikoaren proposamena

2022ko datuetan oinarrituz, 2023an eskainiko diren lanpostuak 870 lirateke, Espainiar Estatuko birjartze-tasak zehaztutakoaren arabera. Hauetatik 725 karrerako funtzionarioen erretiro, heriotza eta eszedentzien ondorioz erreserbarik gabekoko lanpostuak dira. Gainontzekoak, Espainiako legeak ahalbidetzen duen birjartze-tasari lotutako %20ko tasa gehigarria aplikatuko die Hezkuntza Sailak. Orotara, 870 postu lan eskaintza publikora aterako direla aurreikusten du. Birjartze tasa urtero kalkulatzenez, urtero onartu behar dira EPE eskaintzarako lanpostu hutsak. Urtero onartzen diren lanpostuak pilatu egiten dira eta **hiru urtetik behin deituko diren oposizio zikloetan** eskainiko dira.

- 4. Lan Baldintzak arautzen dituen akordioaren proposamena

Arestian esan bezala, atzoko bilkuran ezinezkoa izan zen gai honi heltzea, beraz datozen negoziazio mahaiei begira **LABek foroak antolatuko ditu** afiliazioaren iritzia eta ekarpenak jasotzeko helburuz. Lanean jarraituko dugu ahalik eta Akordio Araultzaile onena lortzeko!



**BAGARA** *zurekin* **BAGARA** *Un sindicalismo diferente*

